

6

1920an OROKIETAn

TRIKUHARRIAK

-Badakizu non dauden trikuharriak?.

-Orain ez dakit opatuko nuken, bai denborakin uste opatuko nukela; dago Ultzamako mugen ta Ilarregiko mugen Erlaindik mugekosorora bitertio.

-Handia edo nolakoa da?

-Or dago, ez aundia ezta. daude arri batzuk jarri kantonkan, eta gero gañetik dago losa bat aundie, igual izango ditin, ez daki ba nik.

-Mileka urte?

-Mileka urteak ez. Bai bai, arri aundia eh?, arri igual izango ttu mile kilo beño geiago. Mileka urte ere bai.

Xarelan  
92

## ERMITAK

-Ba dira ermitak?

Bai ermita bat, hori, San Fermin deitzen ziotena, ta orain ia eztago ezta nabari.

-Dena ondatu?.

Dena ondatua eta eztaikit ango Sandue ba omen zen Orokietako elizen.

-Apezak manatzen zuten aunditz zure gazte denboran?.

Apeza ordun, nik uste manatzen zuten asko ta apezai izeten zitzaioten errespetu bat, aundi, guri erakusi ziguten beorketan, eta egin bear izaten giñun saludetua, "Ave María Purísima". Ta gero izaten giñuen saludetua biarra; ibiltzen ziren eskoletara joaten giñelai, gure bidean arpatzen ginuzen zerak, eskazaleak, esaten zitzaioten pobreak, orai ibiltzen diren bezala, eskian, ta erri batetik bestera ibiltzen ziren eta bidean arpatzen giñuzenean gure pobre oiei ere, esaten ziguten esan bear zitzaiotela, "Ave María Purísima"; ta denak saludetzen ziren pobre guziek "Ave María Purisimakin", eta igual eskolara bagiñuazin zortzi amar ume eh? kuadrille, ta denak "Ave María Purisima" erran bear izan giñun, ta guri bakar onbatek ez baldin bazigun esaten gero igual ore kontatzen zion maistraia edo apezai ez giñola esan eta egiten ziguten kastigetua, zigortua.

## IHOTEAK

-Ihoteak, zer ziren, festak baño politago?

Kasi, kasi politago.

-Bai, ta ioteak egiten ziren etxez itxe puska biltzen eta mutil nausiak ibiltzen zun gerrena; ta gerrenoi zen zera, batzutan izaten zen zurezkoa eta bertze batzuetan burnizkoa; Eta itxetan ematen ziguten zera urdaia, txerria iltzen zen eta ematen zuten urdaia ta txistorra. Ta puskoï sartzan zen makil artan goitik bera ta txitorra ere bai, ta txistorra alde batera utzi ta urdaie bertze aldera beire ta itten zen kerren. Kerren bata undie puske oiek jarri ta. Itxez itxe ibiltzen.

Ori baño lenago, iotean izaten ziren txulubita ta tanporra, benoo iotetan ez zen izaten txulubita ta tanporrak, ahoko musika filarmonika edo kordioi txiki bat, ta ure izaten zen bakar on batek ori jotzen zuena, arrekin ematen zen ronda ori, gero zera puske biltzen, püske biltzia izaten zitzaion. Urdaia, txitorra, arroltziak eta ogia maten zuten, eta gero zean etxeakoandrea baldin itxan ematen zuten ori gexago, eta mutil nausiari etxian geiago, eta gero etxe bakoitzean, batzuk maten zutela intxaurrak, naranjak edo maten zituzten mutilei. Ta itxez itxe ta lenbizko egunian itten zen erria erria, beste egunian itten zen Erbittiarrak Orokietara ttortzen ziren, gero Orokietarrak Erbittiri joaten ziren eta egun berean errie ta beste egunian Erbitire ta gero bestiak berriz irugarren egunian baserrik o bordak eta Ferrreria; beste barrioeak eta irugarren egunian ayekin ibiltzen ziren ta mutillak egiten ziren mozorrotu edo txatxotu ta erriko mutilek etortzen ziren Orokietara txatxutu.

Ultzaman eitten ziren asko txatxotu ta mutilak, ta emen berriz Basaburun guttiago, Orokietan gutxigo ta Ilarregiko txatxuk torri onea ta, emen ibiltzen zien gora ta bera ibiltzen ziren laisterka eta arpatzen zigutelarik eiten ziguten ixes batekin "yo", ta denak beldurre izaten ginuen ta aitte ta ama eta zarrak egoten ziren asarre, ez bear zela txatxotu eta ibiltzia, ori pekatu zela o eta zenbait aldiz Ilarregiarrak itten zioten Orokietarrak arrike eman itten zioten, ta ailagatu ziren bai Ilarregiarrak ere Orokietara arrike ematia, osea, asarretu, ia zergatik etortzen ziren andik onera...

JOXE OITZ - OROKIETA (83 urte)